

Hamar urte, hamaika bizipen

Garate, Miren

1. Sarrera

Hamar urte joan dira jada. 2007ari begira jarrita, hemerrotekek diote erosketa saskiaren garestitzea zela ekonomia arloko kezketako bat. Hari lotuta, Euriborraren bilakaerari buruzko grafikoak agertzen ziren hilabeteko azken egunetan. %4tik gora zebilen hipoteka gehienak kalkulatzeko erreferentziatzat erabiltzen den indizea, euroa sortuz geroztik izandako mailarik gorenean. Hori gutxi ez eta etxeen prezioak ere inoizko garestien. Donostian, adibidez, metro karratua 4.000 eurotik gora. Lan istripuak behar baino gehiago, eta lan gatazka gehienak lan baldintza hobek aldarrikatzeko. Enplegu kopuruari buruzko kezka handirik ez zen ikusten artean. Langabezia tasa %4ren azpitik zegoen. Kantitate aldetik ondo, baina kalitateari begira, erronkarik ez. Mileurista zen modako hitzetako bat. Lanaldi osoan aritu arren, hilean 1.000 euroko soldatara iristen ez ziren ondo prestatutako gazteen kolektibolari buruz aritzeko erabiltzen zen. Euskal ekonomia hazten ari zen.

Abuztuko albisteetan agertu ziren lehen zantzu argiak. Inbertsio funtsen porrotak AEBetan nahiz Europan, eta banku zentralak sisteman dirua sartzen. Nolanahi ere, espezializatutako komunikabideek bakarrik eman zieten garrantzia gertakari haiei. Tantaka-tantaka joan zen bistaratzeko zetorrena. Lehertu, berriz, 2008ko irailean egin zen egoera. Inflexio punturen bat aipatzekotan, Lehman Brothers inbertsio bankuaren porrota jotzen da beti krisiaren hastapena markatu zuen fenomenotzat. AEBetako laugarren inbertsio bankurik handiena zen, eta 26.000 langile baino gehiago zituen. Egun batzuk lehenago erreskatatu zituen Gobernuak Freddie Mac eta Fannie Mae, eta egun batzuk geroago egin zuten Goldman Sachs-ek eta Morgan Stanley-ek ere inbertsio banku izateari utzi eta banku komertzial bihurtzeko eskaera.

Alabaina, segituan ikusi zen ez zela AEBetara mugatutako fenomeno bat, ez zela banku bakar batzuei soilik eragingo zien arazo bat. Krisia, orduz geroztik ez da beste konturik egon ekonomiari buruzko albisteetan. Harluxeten definizioaren arabera, ondasun eta zerbitzuen eskari eta eskaintzaren arteko oreka haustea da krisi bat ekonomian, eta porrotak eta langabezia sortarazten ditu. Finean, horixe da gertatu dena. Aipatu bezala, finantza arloan eta etxebizitza merkatuan ikusi ziren lehen desoreka horiek. *Subprime* (zabor hipotekak) izan zen herritarrek ikasi

beharreko aurreneko terminoetako bat. Adituek azaltzen zuten finantza erakundeek behar baino zorrotasun gutxiagorekin jokatu zutela, ez zituztela ondo neurtu arriskuak, ia edozeini eman zizkietela etxea erosteko maileguak, eta finantza produktu izugarri konplexuak zeudela ordainketa horien mende. Alegia, gehiegi zorpetu zirela familiak, eta Erreserba Federalak interes tasetan egindako igoeren ondoren, jasotako dirua bueltatzeko modurik ez zutela jada, eta horren ondorioz, arazo handiak zituztela finantza erakundeek.



Kontatzen zuten espekulazioa egon zela etxebizitza sektorearen bueltan, eta azkenean, burbuila lehertu egin zela. Ez ziren arrotzak azalpen haiek. Herriko finantza erakundeek ere ematen zituzten etxearen balioa adinako maileguak. Egun gutxi egiten zituzten *salgai* kartelek leiho eta balkoietan. Epe labur edo ertainean erosteko ideia buruan zutenek etsipenez begiratzen zieten etxe-agentzietako erakusleihoei, hilabetez hilabete igotzen ziren salneurriak, eta egoerak eragiten zuen antsietate puntu bat, azkar mugitu beharreko sentsazio bat, bestela beste norbaitetik aurea hartzeko beldurra.

Bat-batean, ordea, konfiantza falta nagusitu zen finantza sisteman, eta maileguen iturriak itxi zituzten erakundeek. Eraikuntza sektorea gelditu egin zen, eta finantziario falta hori gainerako arloak ziprztintzen hasi zen. Eskaerak izan arren, zenbait proiektu gauzatzeko dirurik gabe geratu ziren enpresak, eta ateak itxi behar

izan zituzten. Eskaera faltak eraginda jaitsi zituzten pertsianak beste batzuek. Erruz ugaritu ziren langabeak, aurrena eraikuntzan, eta ondoren, sektore guzti-guztietan.

Atzeraldian sartu ziren Mendebaldeko herrialdeak. Hasieran, ukazioaldi bat izan zuten gobernuak. Krisi hitza erabiltzea saihesten zuten presidentek: “Gu ondo gaude; gure finantza sistema sendoa da; gure finantza erakundeak ez dute gehiegikeriarik egin, ondo neurtu dituzte arriskuak”. Konparatiboan hitz egiten zuten asko: “Gu AEBetan baino hobeto gaude; gu Mediterraneoko herrialde horietan baino hobeto; guri ez zaigu Greziari gertatutakoa gertatuko; gu Espainian baino hobeto”. Alabaina, hurrengo urteetan, defizit eta zor publikoek abiadura handiko hazkundeak izan zituzten garatutako herrialde gehienetan. Arrisku sarien eta burtsen grafikoek malda handiak marrazten zituzten. Eurogunearen proiektuaren ahuleziak agerian geratu ziren, eta galdera ikur bat bestearen atzetik etorri zen. Zer egin, herrialdeak erreskatatu bai edo ez, nola. Troikak agindutako neurrien beldur ziren gobernuak, eta batez ere, herritarrak, kontuak onbideratzeko, egundoko murrizketa neurriak aplikatzen zituztelako administrazio publikoek. Prestazioen zenbeteoak gutxitu zituzten, eta haiek jasotzeko baldintzak zorrotzu. Zuloak estaltzeko dirua handik edo hemendik lortu behar eta balio erantsiaren zergak handitu zituzten behin baino gehiagotan.

Bankuak eta herrialdeak erreskatatu zituzten; kutzak desagertu ziren, banku bihurtzeko. Erreskate horiek ez ziren iritsi herritarrengana, eta etxegabeteak eguneroko ogi bihurtu ziren. Hutsik geratutako enplegu publikoak ordezkatzeari utzi zioten, eta lan eskaintza publikoa egiteko baimenak mugatu zituzten. Enpresek soldatak apaldu zituzten, batez ere hasiberrienak. Eta abar eta abar.

“Krisi” abizen horren baitan, izen bat baino gehiago egon da: *subprime* krisia, zorraren krisia, enpleguaren krisia, eta azkenean, Atzeraldi Handia izenarekin bataiatu da azken hamarkada. Baina batez ere izen-abizen asko egon da krisiaren atzean, bizipen bat egoten baita estatistiketako kopuru bakoitzaren atzean. Guztiei eragin die krisiak? Baietz esango nuke, krisiaren testuinguru horretan hartutako neurriek eta egindako erreformek luzaroan iraungo dutelako. Enpleguari eta lan baldintzei eutsi dieten langileek ere, biharko egunean kaleratzen badituzte, kalteordain txikiagoa jasoko dute, edo erretiroa hartzen dutenean, Espainiako egoera ekonomikoari begira egon beharko dute pentsio zenbateko igoerarekin eta jaitsierekin eguneratzen dioten jakiteko. Guztiei berdin eragin die krisiak? Argi dago ezetz, lehendik ere egoera txarrenean eta babes gutxienarekin zeuden kolektiboak kolpatu ditu gogorren. Azken urteotan egindako elkarrizketetan lehen pertsonan edo aditu gisa kontatutakoak dira hurrengo orrialdeetan komatxo artean ageri diren adierazpenak.

2. Gazteak

Bereziki eragin die krisiak gazteei. “Bi urte barru ezin dut imajinatu neure burua, oso urrun ikusten dudan zerbait da. Testuinguru ekonomikoak aurreikuspen handirik gabe bizitzera bultzatu gaitu gazteok, ez dakigu bihar lanik izango dugun, zer baldintzatan, eta horrela bizi proiektu bat osatzea konplikatu da”. Saiatu, ikasi eta

lortuko duzu nahi duzuna. Erabat barneratutako eskema zen. Eta horren bueltan egiten zuten etorkizunaren irudikapen bat. 20-24 urterekin ikasketak amaitu; enplegu bat aurkitu; egonkortasun apur bat lortutakoan gurasoen etxea utzi; seme-alabak izan. Noski, ez dago esan beharrik ez zela hori aukera bakarra, ezta ezinbestean onena ere, baina inguruan ikusitakoaren arabera, bai arruntena. “Iraganeko bide-orriak zaharkituta geratu dira, eta oraingo biografietan gero eta pisu handiagoa du egunean egunekoa aurrera ateratzeko moduak aurkitu beharrak, bai enpleguari dagokionean, bai bestelako eremuetan”.

Europako Batasunean 2013 hasieran jo zuen goia 25 urtez azpikoen lan-gabezia tasak. %23,9ra iritsi zen batez bestekoa, nahiz eta kopuru hori bikoiztu ere egiten zuten zenbait herrialdek, Greziak eta Espainiak kasu (azken horren datuetan, Hego Euskal Herriko gazteak ere sartzen dira). Hau da, herrialdeko gazteen erdiak, lan faltan, bada zerbait.

“Gure garaiaren ere gertatzen zen: gaztetan beti hasi izan da jendea baldintza okerragotan, baina ez zen hain zaila enpresan bertan gora egitea. Orain, badirudi betirako dela prekarietatea, 40 urteko jendea ikusten duzu egonkortasuna lortu ezinda, eta ez prekarizatutako sektoretzat jo izan direnetan bakarrik, edozeinetan: irakaskuntzan, mediku...”.

“Belaunaldi galdua” bezalako esaldi katastrofistak erabili izan dira gazteei buruzko solasaldietan, edo esan izan da, Bigarren Mundu Gerraz geroztik lehen aldiz, gurasoak baino okerrago biziko direla seme-alabak. “Okerrago? Akaso ekonomikoki bai, ez dugu halako soldata eta egonkortasunik izango, baina, oro har, okerrago ez gara biziko. Haien aldean aukera handiak izan ditugu guk”. Nazio Batuen Erakundeak 15 eta 24 urte artekoak jotzen ditu gaztetzat. Eta krisia hasi zenean 24 urte zituztenei eta 15 urte zituztenei ez die berdin eragin egoera ekonomiko nahasi horrek. Gazte belaunaldi horren baitan, egon da adin tarte jakin bateko jendea nahiko galduta egon dena, bere burua noraezean ikusi duena. Itxa-



ropentsu sartu ziren unibertsitatean, pentsatuz ikasketak amaitutakoan izango zutela aukeraren bat; ingelesa jakiteak ateak irekiko zizkiela; master bat egitea bazela berme bat enplegu on bat eskuratzeko. Baina jo ate bat eta beste bat, eta ezer ez. Beka batetik bestera saltoka, musu-truk praktikak egiten, edo onenera, prekarietatea. Lehen gutxiespen zentzuz erabiltzen zen mileurista izaera ia amets.

“Guk, zentzu horretan, abantaila izan dugu: behintzat bagenekien panorama zein izango zen ikasketak amaitutakoan, eta lasai hartu dugu kontua. Arreba bat dut hiru urte zaharragoa, eta haiek oso gaizki pasa dute, frustratuta egon dira, espero ez zuten zerbait aurkitu dutelako”.

Testuinguru horretan, mailetak egitea erabaki izan dute batzuek, eta atzerrira jo dute aukera gehiagoren bila. Etengabe animatu dira gazteak alde egitera, esanez esperientzia horrek garapen pertsonal bat ekarriko ziela, prestakuntza osatzeko modurik onena zela, beste kultura batzuekin nahastu eta lan egiteko beste modu batzuk ezagutuko zituztela, hizkuntzak ikastea ezinbestekoa zela. Estatistikak ez dira oso zehatzak, eta joera horren tamaina neurtzea zaila da. Askok ez dute errolda aldatu, ez dute jakinarazi atzerrira joan direla, esate baterako, laguntza batzuk eskatzeko edo babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko beharrezkoa delako bertan izatea bizilekua.

Asko izan diren edo gutxi izan diren aparte utzita, kezkarriena da zergatik joan diren, eta emigrazio fenomeno horren bueltan egon diren adierazpen horiek. Aukera aparta zela esan zaie, eta aukera bat izanez gero, oso litekeena da aparta izatea, baina beste aukerarik ez izateagatik alde egitea beste gauza bat.

“Arkitektoa naiz. Ahalegin handia eginda, amaitu nuen karrera. Hiru urte egin nituen lan bila, eta ezer ez, arropa denda batean aritzen nintzen asteburuetan, baina nirean ezer ez. Azkenean, Latinoamerikan arkitektoak behar zituztela-eta, hara joan nintzen. Ez nik atzerrira joateko gogoia nuelako, ikasketetan egindako ahalegina alferrik galdu nahi ez nuelako baizik”.

Errazetik gutxi du atzerrira joan, bizileku bat aurkitu, lan eskaintzetara aurkeztu eta zerbait txukuna aurkitzeak. Are gutxiago hango hizkuntza menderatzen ez den herrialde batera joanez gero. “Ingelesa ikasi nahi nuen, eta Londresera etorri nintzen. Bizitzeko hiri gogorra da. Bakoitza berera doa. Zeure lekua aurkitu arte oso gaizki pasatzen da”.

Eta joateko pausoa zaila den bezala, itzulerako urratsa egitea ere bai askotan. “Hor hala moduz egoteko, zertarako bueltatu? Oraindik ez behintzat, ez dut hobe kuntzarik ikusten”. Inor gutxi joaten da betirako, hasierako asmoa normalean ez da hori izaten. Epe bat izaten du buruan migratzaileak, eta etorritakoan joan zenean baino egoera hobean irudikatzen du bere burua. “Gaur egun arazoa da atzerrian dauden gazte horietako gehienek nahi dutela itzultzea, baina ez dutela ikusten aukerarik horretarako, batez ere enplegu aukerei dagokienez”.

Gutxiagotan hitz egiten den arren, itzultutakoan ere behar du egokitzapenaldi bat atzerrian denboraldi bat egin duenak, norberak bezala, ingurukoek ere beren bidea egiten dutelako, eta gauzak ez direlako utzitako moduan aurkitzen sarri.

“Ez nuen gehiegiz pentsatu itzuleran aurkituko nuenari buruz, ez dakit, emantzat edo jotzen nuen betiko moduan elkartzen jarraituko zutela lagunek, kafea hartzeko astegunetan, pa-

rrandarako asteburuetan. Baina itzuli nintzen eta batzuek ordurako umeak zituzten, beste batzuek ordu asko sartu beharreko lanak, atzerrian jarraitzen zuten pare batek... Aldaketa handia izan zen, eta galduta sentitu nintzen, etxean ere neure lekua aurkitu ezinda”.

Gazteak eta ikasketa maila altukoak izan dira kanpora joan diren gehienak, baina emigratzaileen soslaia zabaldu ere egin du krisiak.

“Inoiz atzerrira joan gabea nintzen, eta orain hemen nago, 53 urterekin Angolan lanean. Ez nuen berehala pentsatuko, baina betiko enpresa itxi zuten, eta hementxe suertatu zitzaidan lanerako aukera. Adin txarra dut hor zerbait aurkitzeko, beraz, hainbestean, gus-tura”.

Itxura batera, emigrazio proiektu horien artean, erakargarriena dirudi: euskal enpresa baten eskutik joan kontratu batekin, eta atzerrian hitzartutako denbora bat igaro ostean berriro ere etxera bueltatzea, enpresa berean jarraitzeko.

“Pauso hori ematen duen langileak nahi du, itzultzen denean, kanpoan barneratutako eza-gutza horiek aplikatzeko aukera izatea, nolabait baloratua sentitzea. Eta horretarako au-kerarik ikusten ez badu, utzi egiten du enpresa. Enpresek gero eta gehiago zaintzen dute langilearen kanpoko egonaldiak, baina itzulera horren prestakuntzan hankamotz dabilta oraindik”.

3. Atzerritarrak

Euskal gazte askorentzat gogorra izan da eta ari da izaten emigrazio esperientzia, eta zer esanik ez Euskal Herrira inmigratutako pertsonentzat. Inmigrazio ekonomi-koa da nagusi hemen. Sorterrian baino egoera ekonomiko hobea izateko itxaro-penez datoz Europako Batasunetik kanpoko atzerritarrak. Eta migrazio proiektu horren baitan, bizi proiektua bat izaten dute. Izan daiteke urte batzuetan kanpoan lan egin eta itzulitakoan negozio bat jartzea; izan daiteke seme-alaben ikasketak ordaintzea; izan daiteke naziotasuna eskuratzea; edo beste edozein helburu egon daiteke erabakiaren atzean. Enplegua bera ez baita helburua, ororen gaintetik, proiektu hori aurrera eramateko bitartekoa da enplegua. “Zenbaitek ikuspegi era-bat funtzionala dute immigrazioarekiko: lana badago eta zu etortzea behar dut, ni hobeto bizitzeko eta zu hobeto bizitzeko. Baina immigrazioari logika funtzional ho-rrekin begiratzea da immigrazioaren fenomeno ez ulertea”.

Eta ikusi da krisi urteotan. Atzerritarren bueltan lan egiten duten elkar-teek askotan aipatu dute asko ugaritu direla zurrumuruak, batez ere enpleguari eta diru laguntzei lotutakoak. “Oparoaldian, *bienvenidos* eta *bienlegados* ginen, eta krisia iritsi denean, agur, jada ez gaituzte behar, ez da inolako altematibarik egon guretzat”. Hazkunde urteetan, inork ez zituen egoera horren eragiletzat hartu. Jus-tuko soldata nahiz atsedena jasotzen zituzten adinekoak zaintzeagatik eta haien etxeetan bizitzeagatik, komunak garbitzeagatik eta udako egunik beroenetan uzta biltzen aritzeagatik, bertakoek nahi ez zituen lanak egiteagatik. Egoera ekonomi-koa amildu denean, ordea, errudun jo dira segituan. “Orain urte gutxi bi lanpostu eskaini zizkidaten neure sektorean. Eta entzun behar izan zuen: ‘Utzi guretzat ere zerbait’. Hori bai, irribarre txiki batekin, irribarre txiki batekin, baina barrutik”. Lehia



desleiala egitea egotzi izan zaie; lan baldintza oso kaskarrak onartuta prekarietateari hauspoa ematea; aparteko orduak sartzeko prest egotea; lanuzteekin bat ez egitea. “Prekarietatean aritu beste aukerarik ez dugu guk, baina prekarietatea ez dugu guk eragin. Eta hemen egin behar duguna da bertako nahiz kanpoko guztiok elkartu, bestela sistema kapitalista honek guztiok jango gaitu, aurrena gu, baina gure atzetik zuek ere bai”.

Aurreiritzi eta estereotipoen zama dute alde batetik, eta legeek eragindako ahulezia bestetik. Araudiaren arabera, lan esku hutsa baita kanpoko. Baimena behar du etortzeko, lan kontratu bat, estatuko enplegu egoerak baimenduko duen kontratu bat, bertako norbaitekin estali ezin den bat. Paperak zuzen eduki ahal izateko, derrigorrez kotizatu behar dute gutxieneko epe batean. Paperak zuzen eduki ezean, ezin dute familia elkartzeko tramiterik hasi, berez, ez dutelako familiarekin bizitzeko eskubiderik. Bertako naziotasuna duenak erabaki egin dezake semeak eta alabak logela berean egingo duten lo edo ez, soldata apala izan arren seme-alaba gehiago izan edo ez. Seme edo alaba sorterritik ekarri nahi duenak etxearen ezaugarriak jakinarazi behar ditu, maila batetik gorako soldata behar du.

“Nik beti esaten diet sindikatuei kontuan hartu behar dutela langile berezi batzuk dituztela aurrean, legeek ahuldutako langile batzuk. Eta noski defendatu behar direla lan eskubideak, baina ez dezagun azkarregi epaitu langile atzerritarra, jar gaitezen gu ere haren lekuan, eta ea zer egin dezakegun guztion egoera hobetzeko”.

Tentsio batzuk izan dira lantegietan. “Baina ez nuke esango handiegjak izan direnik, azken finean, ez dutelako aukerarik izan lehia bihurtzeko ere”. Prekarietate handieneko sektoreetan pilatu dira, eta ezin izan dute haietatik atera. Gaur egun, oso zaila da sorterritik lan kontratu batekin etortzea. Paperak zuzendu gabe

egiten dute etorrerako bidaia gehienek, eta horrek asko luzatzen du lehendik ere nekeza den bidea. Prestakuntza maila ere bada oztopo batzuentzat. “Enpresek ez dute denborarik lanean erakusteko. Lehen, indarra izanez gero, hartzen zintuzten eraikuntza sektorean-eta, baina hori amaitu zen. Guretzat izugarri garrantzitsua da erakundeek ahalegina egitea jendea prestatzeko”. Baina unibertsitate ikasketak dituztenen egoera ere ez da askoz hobea izaten askotan. Asko ahalegindu diren batzuek bakarrik lortu dute baldintza hobegoko enpleguetan hastea. Kosta egiten da tituluak baliozkotzea, baloratu egin behar da ahaleginak merezi duen edo ez.

“Demagun 40-50 urterekin etortzen zarela, eta unibertsitateko titulua baliozkotzeko beste bi urtean hemen ere unibertsitatera joateko eskatzen dizutela. Esfortzu handia da, bai denbora aldetik, bai diruz. Eta jakinda agian inoiz ez duzula aukerarik izango horretan lan egiteko, merezi dizu? Bien bitartean, gainera, erdoildu egiten dira zure ezagutzak, trebezia galtzen duzu lanbideari lotutako zereginetan”.

Hizkuntzak ere badira traba. “Nik euskara ikasi dut, eta oro har ondo hartzen nau jendeak. 'Zu gu bezalako zara' esaten didate, eta horrek sutan jartzen nau. Ni etorri naiz beharra nuelako, beste hori etorri den bezala”. Multzo berean sartzen dira askotan etorkinak, baina sorterriaren arabera, batzuen eta besteen egoera ez da berdina izan ohi. “Noski daudela lehen mailako eta bigarren mailako etorkinak. Gu etorkinak gara, eta Europatik datozenak, atzerritarrak”. Afrikarrek izaten dute lan merkatuan sartzeko zailtasun gehien, hazkunde urteetan ere ez zen gehiegi hobetu haien egoera. Latinoamerikarrek, gaztelaniaz hitz egiten dutenek, aukera gehiago izaten dituzte.

“Beti esaten da kanpotarrek integratu egin behar dutela, bertakoekin nahastu behar dutela... Baina gero badago kolektibo bat oso arketipikoa dena: txinatarrak. Apenas erlazionatzen dira autoktonoekin, baina oso ekintzaileak dira, badute kultura ekonomiko berezi bat. Eta hemen, krisi garaioan, arazotzat hartzen dira etorkinak, baina norbaitek arazo moduan ikusten ditu txinatarrak?”.

Testuinguru horretan, zer gertatu da? Krisiak migrazio eta bizi proiektuak zapuztu dizkiela asko eta askori: aurreikusi baino denbora gehiago behar izan dute hasierako asmoak betetzeko; hasierako asmoak bete gabe itzuli dira etxera; edo berriz immigratu behar izan dute Europako beste herrialderen batera.

“Berrimmigrazioaren kontu hori aipatzea garrantzitsua da, erakusten baitu jendea ez dela etortzen laguntza publikoetatik bizitzera, batzuek hala uste arren. Helburu batzuk egoten dira migrazio proiektuaren atzean, eta hemen ez bada posible horiek gauzatzea, bada beste nonbait saiatzen da jendea”.

Bestelakoa behar luke bigarren belaunaldien egoerak. Bertan jaiotakoek edo oso txikitik etorritakoek gainerakoek aukera berberak izan behar lituzkete, gainerakoek bezalako prestakuntza jasotzeko modua izan behar luketelako. Immigrazioaren fenomeno berria izanik, urte batzuk barru argiago ikusiko da etorkizunari zer nolako traza hartzen zaion, baina gaur-gaurkoz ez dute itxaropen handirik lehen pausoa ematera ausartu ziren horiek. “Ni ez naiz batere baikorra, badirudi haiei ere immigratzea beste aukerarik ez zaiela geratuko”. Prestakuntzaren kostu ekonomikoa aipatzen dute, eta harreman sareetan gazte horiek izan ditzaketan zuloak ere bai.

“Euskal gizartea klasista da, eta koadrilak indar handia du. Koadrilaren plana bada pizza jan eta freskagarri bat hartzea astebururo edo egunero, eta horrek eskatzen badu gutxienez 10 euroekin ateratzea, agerikoa da: amak 1.000 euro ere ez baditu kobratzen eta horrekin alokairua eta gainerako kostuak ordaindu behar baditu, zuk ezin duzu joan. Eta pixkanaka baztertu egiten zaituzte, eta elkartu behar duzu zure antzeko egoeran daudenekin”.

4. Ekintzaileak

Gazteak atzerrira joatera bezala, ekintzaile izatera bultzatu dira langabeak. Animatu dira buruan zuten ideia hori martxan jartzera, eta azaldu zaie programa eta laguntza asko zeudela horretarako (bidenabar, estatistikak txukuntzeko ere balio zuten langabeak langile autonomo bihurtzeak). “Begirale, laguntzaile eta aholkulari asko dago orain, baina niretzat, ekintzaileari eta inbertsoreari dirua ateratzeko besterik ez dute balio. Aholkuak ematen dituzte inoiz egin ez duten zerbaiti buruz”. “Ekintzaile” hitz arranditsu horren atzean autoenplegua egon da, eta autonomo faltuena izan da krisi urteotan asko ugarritu den figuretako bat. Enpresa jakin horretan lan egiteko baldintza gisa, autonomo bihurtzeko eskatu die nagusiak langileei, nahiz eta enpresa hori bera izan bezero bakar. Abantaila ugari ditu enpresarentzat: proiektua amaitutakoan edo lana jaitzitakoan kalte ordainik ordaindu beharrik ez; azalpenik eman beharrik ez; oporrak nahi baditu langileak, bere kontu egun horiek; BEZari dagokion zatia aurrezteko aukera ematen du autonomo baten zerbitzuak kontratatzeak; materiala ere langileari berari eska daskioke.

Enpresarentzat abantaila ugari, eta langilearentzat apenas.



“Banekien enpresak eskatzen zidana ez zela legezkoa, baina nik behar nuen enplegu hori. Egoera hori izanda, ezin zara hasi enpresari kargu hartzen, hasten bazara esaten hori ez dela bidezkoa eta kontratu arrunt bat egin behar dizutela, ez zaituzte hartzen, eta esan bezala, nik behar nuen enplegu hori. Hilabete batzuk egin nituen, eta berriro lana sartzen zenean deituko zidatela esan zidaten; orain, zain nago. Hilero ordaintzen dut autonomoen kuota, baina ez dut diru sarrerarik, eta ez dakit zer egin: baja ematen badut eta berriro deitzen badidate, autonomoen kuota osorik ordaindu beharko dut, kuota murriztua izateko aukera galduko dudalako”.

Espainiako Gobernuak, autonomo hasiberriei laguntzeko, lehen sei hilabeteetan 50 euroko tarifa laua jartzea erabaki zuen, eta handik bi urtera bitartean, pixkanaka joaten da igotzen kuota. Halere, autonomo izatea garestia dela diote erregimen horretan kotizatzen dutenek. “Hau ez da lekurik onena ekintzaile izateko. Beste herrialde batzuetan, kobratutakoaren arabera ordaintzen dituzu tasak; hemen, aldiz, lan egin edo ez egin, berdin-berdin ordaindu behar duzu autonomoen kuota”.

Hasi eta gutxira ixten dira negozio asko. Beharra eta etsipena ez baitira aliatu onenak negozio bat martxan jartzeko. “Niretzat gauza erabat ezberdinak dira autoenplegua eta ekintzailetza. Ekintzaile batek arazo bat konpondu nahi du, eta dirua irabaztea bada haren motibazio nagusia, gaizki doa”. Helburu horrekin doaz asko garapen agentzietara, aholku eske:

“Etortzen da jendea eta esaten digu: diru sarrerak bermatzeko laguntza jasotzen ari naiz eta gozoki denda bat ireki nahi dut, nik eta bi semeek han lan egiteko. Edo orain modan dagoen beste kontu bat: entzun dut Interneten enpresa bat jartzea erraza dela. Arazo baten irtenbidea nahi dute, baina askotan arazo handiago batean sartzen dira”.

Izan ere, langile autonomoak ondasun pertsonalekin erantzun behar izaten dio pilatutako zorrari. “Berez badago pertsona fisikoen hartzekodunen konkurtsoa egiteko aukera, baina legeak dauden bezala egonda, ez du ezertarako balio”.

Ekonomikoki ez ezik, gauzak gaizki ateratzeak autoestimuan eragiten dituen ondorioak ere kontuan hartzekoak dira. Egon da diskurtso meritokratiko bat ekintzaileei nahiz langabeei begira, gauzak norberaren esku zeudela sinestarazteko ahalegin bat.

“Nik ere uste nuen aterako zitaidala zerbait. Langabezian geratu aurretik urte askoko eskarmentua nuen, eta ezagutza horiek baliatuz zerbait lortuko nuela uste nuen. Jari nuen enpresa bat, eta jo nituen inguruko ate guztiak. Guztiak esaten zidaten oso interesgarria zela proiektua, baina ez zutela ordaintzeko dirurik. Argazkigintzarekiko dudak afizioarekin uztartuz, beste proiektu batekin egin nuen ahalegina ondoren. Lan asko egin nuen debalde, neure burua ezagutzera emateko, baina hartan ere arrankatzerik ez nuen lortu. Ordu asko sartu nituen, eta emaitzarik ez, eta horrek frustrazio handia dakar”.

5. Enpresak

Oparoaldian gremioetan-eta lan faltarik izaten ez zuten autonomo askok utzi behar izan dute jarduera, eta langabeen zerrendetara batu dira. Nabarmen aldatu zaie egoera, eta eroso bizitzetik diru sarrerak bermatzeko eskaera egin behar izatera edo



etxea galtzeko arriskuan egotera igaro dira. Kontsumoa gutxitu egin delako, eta ezinbestean, enpresa handiak ere domino efektua eginez erori direlako, aurretik eramanez gidari, garbitzaile naiz hornitzaileen lanpostuak. Fagor Etxetresnak, Cegasa, Corrugados, Arcelor Mittal Zumarragan, Candy, Inasa. Naval... Orain urte batzuk inork sinetsiko ez zuen arren, itxita daude euskal industriako ikurretako asko, *too big to fail* ziruditenetako asko, edo bestela, bizirauteko ahaleginean ari dira. “Enpresaburuok gure artean komentatzen genuen zerbait handia zettorrela, baina hainbestekoa izango zenik ez genuen uste. Aurretik ere izan ditugu krisiak, baina hau bezalakorik ez”. Egun batetik bestera eskaera zorroak nola ari ziren jais-ten ikusten zuten, eta inpotentzia sentitu, ez zutelako asmatzen egoerari nola aurre egin. “Gure kasuan, kolpetik %80 inguru murriztu zitzaizkigun esportazioak, bi hilabetean, eta barne merkatuan ere %60ko jaitsiera izan genuen”.

Hamarretik bederatziz enpresa txikiak eta ertainak dira Euskal Herrian.

“Enpresa ixtea gogorra da, baina zalantzarik gabe, gogorrena, langileak lanik gabe uztea. Herriko jendea da, herriko familiak, kalean ikusiko dituzunak. Baina egoera huraxe zen, eta zezenari adarretatik heldu behar. Behintzat saiatu ginen ahalik eta ondoen egiten gauzak, langileei uneoro jakinarazi genien zein zen egoera”.

Izan dira bestelako kasuak ere.

“Oporretan nengoen, eta hotelean jaso nuen burofaxa, kaleratu egin nindutela esanez”. “Espedientea indarrean zegoen enpresan. 'Bihar ez etorri, deituko dizugu lana sartzen de-
nean', esan zidan nagusiak, beste azalpenik eman gabe. Lehen aldian, hiru bat astera deitu zidaten. Hurrengoetan, denbora gehiagoan egon nintzen zain, gehiena lau hilabete edo. Telefonoari begira bizi nintzen, etxera sartutako bakoitzean egiten nuen lehen gauza izaten zen telefonoari begiratzea, ea dei galdurik zegoen ikusteko”.

Hain zuzen, enplegua erregulatzeko espedienteak izan da krisiak eguneroko hizketaldiak egindako beste ekarpen nagusietako bat. Dosier horien bidez, kontratuak eteten zaizkie langileei, aldi baterako edo betirako. Edo lanaldiak murrizteko aukera ematen dute. “Hau ez da zintzoen eta gaiztoen arteko borroka bat, kontua ez da enpresak gaiztoak direla eta langileak zintzoak. Ziurgabetasun egoera hone-tan, gehiago ezin zaie eskatu enpresei”. Espediente bat aurkeztu aurretik, langile-ekin negoziatzen saiatzen dira zuzendariak, eta gehien-gehienak haien sinadurarekin aurkeztu dira.

“Seguru egon direla erabilera okerrak, kanpotik ikusi dut kasuren bat, baina oro har, erre-gulazio espedienteak ondo aplikatu dira Euskal Herrian, eta gainera, espediente horien ondorioak onak izan dira, aukera eman dutelako epe bat pasatakoan jarduerarekin jarrai-tzeko. Bestela zein da beste aukera? Zuzenean kalera bota langilea eta lana sartutakoan beste bat hartu?”.

Espediente bat aurkeztu ostean jarduerarekin jarraitzea lortu dutenak asko izan dira; aldiz, oso gutxi hartzekodunen konkurtso bati buelta emateko gai izan di-renak. Porrotak luzaroan egiten dio itzal enpresaburuari.

“Hemen arazo bat daukagu: kulturaliki oso gaizki ikusita dago porrot egitea. Betirako bihur-tzen zara gauzak gaizki egin dituen enpresaburu bat, eta askotan ez da izaten enpresaren errua, faktore askok eragiten dute haren egoeran. Baina nola hain gaizki ikusita dagoen porrota, hartzekodunen konkurtsora jo aurretik ezertarako balio ez duten hainbat neurri hartzen dira, eta azkenean beranduegi aurkezten da konkurtsoa, ezertarako aukerarik ez dagoenean, eta likidazioan amaitzen dute”.

Eta gaizki ateratzen bada? Galdera hori beti buruan.

“Negozioa martxan jarri nahi nuela esandakoan, ingurukoek etengabe esaten zidaten gaizki ateratzeko aukera zegoela. Eta nik beti erantzuten nien akaso porrot egingo zuela nego-zioak, baina ez nintzela porrot egin duen pertsona bat izango, gutxien-gutxienez asko ika-siko nuelako prozesuan”.

6. Protestak

Lan baldintza hobekak eskatzeko baino gehiago, enpresek jarri nahi zituzten erre-gulazio espediente horiek salatzeke izan dira langileen protesta gehienak. Ez dira urterik errazenak sindikatuentzat ere. “Botere harremanak erabat desorekatu ditu lan erreformak”. Gazteengana iristen ez dute asmatzen.

“Nik laster hartuko dut erretiroa eta prest nago langile batzordeko presidente gisa ikasi du-dana beste norbaiti erakusteko, baina inor ez dut ikusten prest lekukoa hartzeko, eta egun-doko pena ematen dit, zeren gazte jendeak ideia oso onak ditu, baina ez, jendeak ez du konprometitu nahi. Ez dut ulertzen: saskibaloi partida baten bueltan edozein egunetan egundoko jendetza biltzen da, eta ez gara gai lana duintzearen alde elkartzeko”.

Historikoki, industrian izan du presentzia handiena langile borrokak, eta sek-tore hori pisua galtzen ari da barne produktu gordinean. Zerbitzuetan eta langile gu-txiko enpresetan kostatzen zaie langileak aktibatzea, ez bada arlo publikoan.

“Greba batzuek nahasmena eragiten dute: metrokoak, zahar etxeetakoak... Nik, erabilitzailea naizen heinean, zerbitzu hori ordaintzen dut, eta zerbitzu hori behar dut. Beraz, hori da zure eta nagusiaren arteko gatazka bat, ez naiz identifikatzen zurekin langile moduan. Gauza bera gertatzen da multinazionalekin ere. Kritikatzen ditugu, baina haietan erosten dugu arropa. Eta jertsea 20 euroan dagoen bitartean, berdin zaigu langile horiek zer baldintzatan ari diren. Beste ezeren gainetik, kontsumitzaileak gara, eta hori oztopo handia da mobilizazioarentzat”.

Zenbait langileri saldutakoaren arabera soldata ordaintzen zaie, eta horrek lankideen arteko elkartasuna sustatu beharrean, lehia eragiten du. Lankideekin Internet bidez komunikatzea gero eta ohikoagoa da, jendeak ezagutu ere ez ditu egiten enpresako gainerako kidea. Kontratu mota ezberdinak izan ditzakete lan berbera egiten duten beharginek: finkoa, aldi baterakoa, prestakuntzakoa, aldi baterako laneko enpresa batek egindakoa, bekaduna. “Eta inor ez da kexatzen: batek berea konponduta duela pentsatzen du, besteak kexatzen bada ez diotela kontratu finkorik egingo, hasiberriak nola kexatuko den bera besteek ez badute ezer esaten... Estrategia bat dago langileak ahultzeko”. Gizartea ere gero eta indibidualistagoa da.

“Gure enpresak soldata eskala bikoitza aplikatu nahi zuen: hasiberriek jada lanean ari ginenok baino 650 euro gutxiago kobratzea nahi zuen. Nola onartuko duzu zure lan berdina egiten duen batek halako aldea izatea soldatan? Eta hasteko, zeuregatik: hurrera norbait bidali behar badute, badakizu noren aurka joango diren. Bada zenbat aldiz entzun behar izan ote genuen soldata duin bat genuela eta zergatik ari ginen greban”.



Lan erreforma eta pentsioen erreforma. Espainiak nahiz Frantziak aldatu dituzte langile aktiboei nahiz erretiroa hartzera doazenei eta hartuta dutenei eragiten dieten legeak. Erreforma horien ondorio nagusiak hauek dira: alde batetik, merkeagoa da langileak kaleratzea; bestetik, urte gehiagoan egin behar da lan erretiroa hartu ahal izateko. Helburua enplegua sortzea zela esan arren, kalitatezkoa eraterik ez da lortu. Araudi berri horiei bai erantzun zaie greba orokor bidez. Ohi bezala, lanuzteen erantzunari buruzko kopuru oso ezberdinak eman zituzten patronalek, gobernuek eta langileen ordezkariak. Ohi bezala, deialdi bakoitza egingakoan, protesten baliagarritasunari buruzko eztabaidak izan ziren, eta biharamunetan, 'eta orain zer?' galdera egin zen. Indarrean jarraitzen dute erreformek. "Pentsa daiteke grebek ez dutela ezertarako balio, baina protesta horiei esker lortu da beste erreforma batzuk geraraztea".

7. Finantza erakundeen irudia

Lan arlotik haratago, zenbait arazo konkreturen bueltan mugimendu eta elkarte sendoak sortu dira, eta izan dute ahalmena arazoei buelta emateko. Etxegabeteen aurkako plataformak eta mendeko ekarpenen bidez dirua galdu dutenek osatutako mugimenduak dira adibiderik argienetakoak. Batzuek zein besteek finantza erakundeen praktika okerrak salatu dituzte. Azken krisi honetan, erabat zikinduta geratu da haien irudia. Eguneroko bizimoduan presentzia handia duen gaia izan arren, ekonomiari buruz ez dakite gehiegi herritarrek, are gutxiago finantzei buruz.

"Baina erakundeek ondo zekiten zertan ari ziren, zenbateko arriskua hartzen ari ziren bezeroak. Eta orain eskuak garbitu nahi dituzte informatzea bezeroen ardura zela esanez. Beren egitekoa zen bezeroei ulertaraztea zertara konprometitzen ziren, eta argi eta garbi ikusi da ez zutela halakorik egin. Medikuairengana joaten banaiz, esaten didana sinesten diot, ez zait beharrezkoa iruditzen medikuntzako ikasketak egitea. Bankuan, berdin behar luke".

Kaltetuen mobilizazio horien argazki eta irudietan, adinekoak asko. Ustez produktu seguru batean jarritako dirua galdu izanagatik protestan, edo seme-alaben etxe edo negozioak bermatu izanagatik kale gorrian geratzeko arriskuan.

"Engainatu egin ninduten: esan zidaten produktu segurua zela, eta horregatik jarri nuen dirua hor. Nik ez dakit ekonomiari buruz ezer, 14 urterako hasi nintzen lanean. Lortu dut dirua berreskuratzea, baina prozesua oso luzea eta zaila izan da, lau bat urte egin ditut borrokan. Epaiketa bera adibidez: ni ez nago halako kontuetara ohituta, eta oso oldarkor jarri zitzaidan aurkako abokatua. Oso gaizki pasa nuen".

Dirutza galdu arren, kontua dagoen bezala uztea nahiago izatea ere ohikoa da. "Hemen jendeak nahi du besteak mobilizatzea, eta haiek arazoa konpontzea lortzen dutenean, orduan joatea beraiek beraiena eskatuz, batere zikindu gabe". Lotsa eta tentel sentsazioa, biak nahastuta maiz.

"Banku baten aurka ezin duzu bakarrik borroka egin, David eta Goliaten arteko lehia da hori. Baina elkartuz gero, gauzak lortzea posible da. Familia bat gugana etortzen denean, etxearen enkantea ez da egiten, eta familia hori kale gorrian ez da inoiz geratzen. Baina zenbat kostatzen den arazo bat duzula onartzea eta laguntza eskatzea".

Ez da atzo goizeko esaera, partekatuz gero, txikiagoak izaten direla arazoak.

“Lehen bileran, nire kasua kontatzeko esan zidaten: ezin nuen, antsietate handia sortzen zidan. Orain lasai hitz egiten dut. Ikusten duzunean jendea zure egoera berean, arazoak hor jarraitzen du, baina behintzat babestua sentitzen zara”.

8. Osasuna

Patrikan igartzen dira argien ondorioak, baina krisi ekonomikoaren arrastoak gainerako arloetara ere hedatu dira. Diru sarrera huts bat baino askoz gehiago da enplegua. Norbera balioetsu sentiarazteko balio du, beharrezko sentiarazteko, eguna antolatzeke, errutina batzuk finkatzeko.

“Hasieran animoso nengoen. Hein batean, deskantsua ere izan zen langabezian geratzea, azken hilabeteak oso gogorak izan zirelako, ikusten genuen enpresa ez zihoala ondo, eta tentsio hura ere ez zen ederra. Hasieratik hasi nintzen lan bila, baina lasai nengoen, ikastaro batzuetan izena eman nuen eta abar. Baina bilaketa horrek emaitzarik ez zuela ematen ikusita, denbora aurrera joan ahala, animoak behera etortzen hasten dira, hondoratu arte. Lan bila aritu behar hori oso gogorra da: ezagutzen ez duzun norbaitengana joan, azaldu langabezian zaudela, errukiagatik edo curriculumaz uzteko esaten dizute, eta ikusten duzu nola jartzen duen multzo handi batean gainean. Edo Interneten izena ematen duzu eskaintza guztietan eta inondik ez dizute deitzen. Eguna joan eta eguna etorri. Ni urte hauetan ikusezina sentitu naiz”.

Osasun mentalean espezializatutako adituek behin baino gehiagotan ohartarazi dute: depresio eta antsietate kasuek nabarmen egin dute gora krisi urteetan, baita zenbait medikamenturen kontsumoak ere. Lana galtzeak eragindako dolua izaten da arazo batzuentzat; besteentzat, berriz, enpleguaren bidez ezalitzen zituzten gabezia batzuk bistaritzen dira langabezian geratutakoan, eta horie aurre egiten ez asmatzeak ekartzen ditu arazoak.

“Langabezia saria agortzen ari zitzaidala ikusitakoan sartu nintzen ni zulo beltz horretan. Ikusi nuen bakarrik ez nintzela gai egoerari buelta emateko, eta depresioaren aurkako botikak hartzen hasi nintzen. Ez zen atsegina izan, goragalea ematen zidatelako. Baina behintzat ohetik altxatzea lortzen nuen haiekin, eta errutina moduko bat mantendu ahal izan nuen: goizetan ikastaro batera joaten nintzen, eta arratsaldetan paseo bat ematen banuen, ondo. Hor, askotan, ingurukoen presioa kudeatzen jakitea ere ez da erraza: egun batean ohean geratu nahi baduzu eta horrek balio badizu hurrengo egunerako indarrak biltzeko zergatik ez duzu bada egingo, baina hori egiten duzu eta ingurukoak haserretu egiten dira, eta orduan eta okerrago sentitzen zara”.

Bikote harreman asko higatu ditu krisiak. “Denok nahi ditugu pertsona sendoak gure ondoan, eta langabezia da desoreka egoera bat, zu ez zaude normal”. Paradoxikoki, dibortzioak gutxiti egin dira ordea, horretarako ere dirua behar delako. Bikote harremanetan ez ezik, lagun arteko harremanetan ere igarri dira krisiaren eraginak.

“Zuk dirua duzu eta nik ere bai, orduan biok ondo pasatzen dugu. Baina demagun zuk dirua duzula eta nik ez. Jada iruditzen zaizu zuri mesede bat egiteagatik atera naizela, esfortzu bat egiten ari naizela zurekin ateratzeko, eta ez zara ondo sentitzen”.

Naturaltasunez begiratu beharrean, errukizko begirada eskaini izan zaio langabeari; kritikatu egin izan da, tabernan ordu gehiegi pasatzen dituelako, ez duelako behar adinako ahaleginik egiten beste zerbait aurkitzeko; edo zuzenean erruduntzat jotzen da, egoeraren gaineko inolako erantzukizun ez izan arren.

“Ni behin afaltzera atera nintzen lagunekin, eta ordaindu egin zidaten. Eta sentitu nintzen izugarri gaizki. Intentzio onenarekin egingo zuten, baina ni afaltzera atera nintzen banuelako modua plan hura ordaintzeko, jabetxe garesti batera joatea izan balitz plana, etxean geratuko nintzen, eta kito”.

Harreman sare bat ere eskaintzen du lantegiak. “Batzuek handik kanpo ez dute inor, lankideekin bakarrik erlazionatzen dira egunerokotasunean. Lana galtzea bereziki gogorra da haientzat, eta ez badute azkar beste zerbait aurkitzen, gero eta isolamendu handiagoa izaten dute”. Era berean, elkarrizketa askotako lehen galdera izaten da: zertan egiten duzu lan? “Garenaren zati hori (igeltsero, irakasle, administrari) kentzen zaigunean, identitate borroka hasten da, identitate profesional horietatik haratago nor garen aurkitzeko. Langabeziak kalte egiten dio bai norberak bere buruarekiko duen irudiari, bai besteek hari buruz dutenari ere”. Bakoitzak bere burua, edo besteek, baina baztertuta geratzea arrunta da. “Hemen arazoa da enplegu kualifikatua izatea dela gizarteratzeko bide bakarra, ez baduzu lanik egiten apartatu egiten zaituzte. Aurkitu behar ditugu gizarteratzeko beste modu batzuk. Baina zoritxarrez kontrako bidea hartu dugu, gero eta beranduago hartzen da erretiroa eta abar”.

9. Adinekoak

Krisiak gutxien eragin dion kolektiboa dela esan izan da: pentsionistak. Hileroko ordainak gutxi igo zaizkie, baina inflazioa ere apal mantendu denez, erosteko ahalmenari eutsi ahal izan diote. Zuzenean baino gehiago, zeharka igarri dituzte haiek krisiaren ondorioak. Biloben zaintzaren ardura hartu dute askok, seme-alabek lan egin ahal izateko. “Zaintzaile bat hartuko banu, irabazten dudana beste edo gehiago ordaindu beharko nioke, eta biotako batek lana uzteko aukerarik ez dugu, soldata bakarrarekin ezingo genituzkeelako ditugun gastu guztiak ordaindu”. Kontzilioaren kontua benetako arazo baita oraindik, eta krisiak arlo horretan atzera pausoak bakarrik ekarri baititu. “Gastu moduan ikusten da gaia, eta krisi garaietan, gastuak ahalik eta gehien murrizten dituzte enpresek”. Aiton-amonei ez ezik, bereziki emakumei egiten die kalte egoerak. Ez luke zertan horrela izan, baino praktikan hala da. Haiek dira lanaldia murrizten eta eszedentziak hartzen dituzten ia guztiak. “Soldata apalagoak dituzte andreek, eta pentsatzen da: irabazten duanagatik neu geratuko naiz etxean, eta erreproduzitzen ditugu saihestu nahi genituen rol horiek guztiak”.

Zaintza lanetan ez ezik, diruz ere lagundu dituzte adinekoek seme-alabak. Familia askoren sustengu bihurtu dira, haien pentsioei esker ase dituzte oinarritzko premiak ingurukoek. Uko egin diete bidaiatzeari eta beste zenbait asmori, seme-alaben ongizateagatik. “Ozen esan behar da: adinekoak hor egon dira, gustura edo obligazioa sentitu dutelako, baina erantzun egin dute, familiako larrialdi ego-



era eskatzen zuen neurrian. Erantzuna ez da hainbestekoa izan gurasoek behar izan dutenean seme-alaben laguntza”. Zahar etxeetako itxaron zerrendak murriztu dira, adinekoa etxean mantentzea erabaki dutelako familiek, pentsioari eusteko. “Beraz positiboa behar luke horrek, adinekoek, oro har, bakoitzak bere etxean bizitzea nahiago izaten dutelako, baina ez daude ondo zainduta”.

10. Etorkizuna

Hamarkada bat joan da krisiaren hastapen hartatik, eta orain urte batzuetako zenbaki gorri batzuk itzuli dira berdera. “Niretzat ez gaude krisian. Hau da normaltasun berria: beti kolokan, hazkunde tasa txikiekin, beti zalantzas beterik. Japonia akordatzan dit egoerak, han ere etxebizitza burbuila lehertu zen, eta ondoren, urteak eman dituzte burua altxatu ezinda”. Hiruhileko batzuk badaramatzate hazten herrialdeek. “Baina guk ez dugu hazten jarraitzeko premiarik: planeta finitua da, ezin da beti hazten jarraitu. Barne produktu gordina ez da herrialde bateko ongizatearen isla, hobe genuke desazkundearen bidea hartu”.

Langabeen zerrendak ere murriztu dira, eta enplegua erregulatzeko espediente gutxiago aurkezten dituzte enpresek, nahiz eta itxierak eta kaleratzeak hor jarraitu. Baina langabeen zerrenda horietan, batzuk aspaldi izena emandakoak, iraupen luzeko langabeak, enplegu bila urtebete baino gehiago daramatenak. Horren erakusle da langabezia saria jasotzen dutenen portzentajea. Erdiek baino gehiagok ez dute inolako diru sarrerarik hilabete amaieran, edo subsidioaren bidez egin behar dute aurrera. Krisi garaian, premiarik handieneko sasoiari, apaldu egin dira prestazioak, eta zazpigarren hilabetetik aurrera, soldata oinarriaren erdia bakarrik kobratzen da Hego Euskal Herrian. Zerbait aurkitzeko itxaropena ere galduta dute jada zenbaitek. Bereziki beltza da 50 urtetik gorakoen panorama, prestakun-

tza maila baxua izaten dutelako gehienek, eta lanean erakutsi behar izanez gero, enpresek nahiago izaten dutelako gazteei erakutsi. “Ni jada saiatu ere ez naiz egiten, erretiroa hartzeko adinik ez dut, baina erretiratu naiz lan merkatutik. Hilean 400 euro kobratzen ditut, ea laguntza hori behintzat ez duten kentzen”.

Zaila da beste enplegu bat aurkitzea, eta are zailago lehengo baldintzak edo hobeak dituen bat topatzea. Prekarietatea da nagusi lan merkatuan, eta sektore oso gutxi libratzen dira lan baldintza kaxkarretatik. Kontratu berri ia guztiak aldi baterakoak dira. “Lehen enpresek bazuten nolabaiteko egonkortasuna, asko okertzeko beldurrik gabe ezin zitzaizkete bizpahiru urterako aurreikuspenak, eta kontratu finkoak egiteko modua zuten. Globalizazioaren ondorioz, ordea, orain ia ezinezkoa da egonkortasun hori”. Langile pobreez hitz egiten da, enplegu bat izatea ez da aski berme pobrezia saihesteko. Lanean ari diren batzuek hilabete amaierara iristerik ez dute lortzen; pentsioak diru sarrerak bermatzeko errentarekin osatu behar dituzte erretiroa hartuta duten adinekoek.

Polarizazioa da indarra hartzen ari den terminoetako bat. Munduko aberastasuna gero eta esku gutxiagotan ari da pilatzen. Baina muturretara joan gabe, desorekak agerikoak dira gertuago ere.

“Ikusten dut arriskua hurrengo urteetan are gehiago handitzeko desberdintasunak. Zergatik? Soldata igoerak negoziatu behar izanez gero, nork du horretarako aukera? Kontratu finko bat duenak, egonkortasun bat duenak. Hasiberriarentzat askoz konplikatuagoa da baldintza hobeak eskatzea”.

Inguruan hainbesteko langabezia egonik oporren osteko tristura txikiagoa izaten dela esatea ergelkeria hutsa den bezala, gutxiago kontsumitzen dela esatea ere antzeko zerbait dirudi, hautu kontziente baten ordezkari falta izaten delako arrazoi nagusia gehienetan. Hala ere, kontsumo arduratsua gorri lotutako egitasmoak ugaritu dira. “Iraunkorra” izenondoa batu zaio ekoizpenari, eta “so-



ziala” ekonomiari. Diruaren orde, pertsona jarri behar dela erdigunean aldarrikatzen da. Energiaren kontsumo kooperatibak sortu dira, kontsumo zuzena indartu da, bigarren eskuko azoka eta truke gehiago egiten dira.

Hala, dena ez dela zuria edo beltza izaten esaten da, eta krisiaren alde onak bilatzen jarrira, aurkitzen dira batzuk. Etxebizitza merkatuko burbuila hura lehertu ostean, prezioak merkatu egin dira azken urteotan, eta interes tasak baxu daude-nez, maileguren kuotak ere orain urte batzuk baino apalagoak dira. Dena den, krisiaren hastapen hartan bezala, etxeen prezioaren gaia ere bolo-bolo dabil berriro, batez ere kostaldeko herrietan eta turismoak indarra duen guneetan. “Egundoko arazoa dator. Jabeek jada nahiago dute egun bakar batzuetan alokatu turistei, egundoko dirutza eskatu, eta urtean zehar etxe hori itxita eduki. Non bizi behar dugu?”.

Zor publikoaren arazoa geratzeko etorri da, eta hurrengo belaunaldiei ere ordainaraziko zaie. Pentsio sistema publikoaren iraunkortasunari buruzko zalantzak hor daude. Zenbaitentzat funts pribatuak sustatzeko ahalegina soilik dago diskurtso horren atzean, baina gero eta gehiago dira gaztetatik erretirorako dirua gordetzen hasten direnak. Teknologiak lan merkatua nola aldatuko duen igartzea ere ez da erraza. Zeregin jakin batzuetarako makinak aski izango dira, hori argi samar dago. Teknologiaren garapenari lotuta lanpostuak sortuko direla ere bai, baina ikusi beharko da zenbat eta nolakoak izango diren lanpostu horiek.

Krisi edo post-krisi honetan ere, estatistiketako kopuruen atzean, pertsonak, izen-abizenak. Hala izango da gero ere.